

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 15a

17. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Tuterako Udalari buruzkoa, 2014ko ekitaldikoa, ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 2014ko ekitaldikoa, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

- I.** Sarrera (3. or.).
- II.** Helburua (6. or.).
- III.** Norainokoa (6. or.).
- IV.** Udalaren 2014ko kontu orokorrari buruzko iritzia. (7. or.).
 - IV. 1. 2014ko kontu orokorrari buruzko finantza-iritzia (8. or.).
 - IV.2. Legezketasunaren betetzeari buruzko iritzia (8. or.).
 - IV.3. Udalaren 2014ko abenduaren 31ko egoera ekonomiko-finantzarioa (8. or.).
 - IV. 4. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (11. or.).

IV.5. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (11. or.).

V. Udalaren 2014ko kontu orokorraren laburpena (12. or.).

V.1. 2014ko aurrekontu bateratuaren betetzearen egoera-orria (12. or.).

V.2. 2014ko aurrekontu bateratuaren emaitza (13. or.).

V.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orria 2014ko abenduaren 31n (13. or.).

V.4. 2014ko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (14. or.).

V.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2014an (15. or.).

VI. Iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (16. or.).

VI.1. Alderdi orokorrak (16. or.).

VI.2. Langileak (16. or.).

VI.3. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (18. or.).

VI.4. Finantza-zama (19. or.).

VI.5. Transferentzien ondoriozko gastuak (19. or.).

VI.6. Inbertsioak (20. or.).

VI.7. Aurrekontuko diru-sarrerak (21. or.).

VI.8. Hirigintza (22. or.).

Eranskina: Udalaren oroitidazkia


(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Legebiltzarreko Zerbitzu Orokorretako bulegoetan eta honako web helbidean: www.cfnavarra.es/camara.comptos).

I. SARRERA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganberak Tuterako Udalaren eta haren menpeko enteen 2014ko kontu orokorraren erregulartasunari buruzko fiskalizazioa egin du.

Tuterako udalerriak 215 km²-ko azalera du, eta 2014ko urtarilaren 1ean, 35.062 biztanle dauzka.

Udalaren eta haren menpeko erakundeen osaera ondoko grafikoan agertzen da:



2014ko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

A) Administrazioaren Sektor Publikoa

Udalak berak eta haren erakunde autonomoa den Uren Batzarrak osatzen dutena. Honakoak dira 2014ko datu nagusiak:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileak 2014-12-31n
Udala	31.170.008	32.018.728	294
Uren Batzarra	3.356.684	3.118.815	27
Guztira	34.526.692	35.137.543	321

2014an Udalak ez dio inolako ekarpenik egin Uren Batzarrari.

B) Enpresen Sektor Publikoa

Udalak Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoaren jabetza osoa dauka. Entitate horrek zortzi langile dauzka 2014ko abenduaren 31n.

Udalak, 2014an, 1.050.000 euro eman dizkio entitate horri.

2014an, bateratuta aurkeztu ziren Udalaren eta haren erakunde autonomoaren eta enpresa-entitatearen kontuak. Bateratze horren aurrekontu-datu nagusiak honako taula honetan azaltzen dira:

Entitatea	Aitortutako betebeharrak (2014)	Aitortutako eskubideak (2014)
Udala	31.170.008	32.018.728
Uren Batzarra	3.356.684	3.118.815
Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoa	1.458.189	1.495.297
-Bateratzearen doitzak	-1.050.000	-1.050.000
Guztira	34.934.881	35.582.840

C) Fundazioen Sektore Publikoa

Udalak Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa eratu du. 2014an datu ekonomiko hauek ditu (emaitzen kontua):

Fundazio publikoak	Diru-sarrerak	Gastuak	Ekitaldiko emaitzak	Langileak 2014-12-31n
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	164.890	178.507	-13.618	4
María Forcada Fundazioa	12.250	112.874*	-100.624	

*Kopuru horretatik 88.072 euro amortizazioei dagozkie.

2014an, Udalak guztira 115.000 euro eman dizkio Dédalo Fundazioari.

Udalak, gainera, patroi gisa parte hartzen du honako fundazio hauetan: Miguel Eza, María Forcada, Real Casa de Misericordia eta Manuel de Castel-Ruiz.

Udala, gainera, honako hauetako kidea da:

- Erriberako Mankomunitatea, zeina hondakinak biltzeko zerbitzuaz, etxebizitzak eta eraikinak zaharberritzeko bulegoaz eta lazareto zerbitzuaz arduratzen baita.

- UHUNen Tuterako Ikastetxe Elkartuaren Partzuergoa
- Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa.
- Nafarroako Erribera garatzeko estrategietarako partzuergoa (EDER).
- "Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.

Zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2014an
Erriberako Mankomunitatea	45.294
Tarazonicaren Bide Berdearen Partzuergoa	28.186
Nafarroako Erribera garatzeko estrategien partzuergoa (EDER)	47.993
"Camino de Sefarad" Espainiako Judutegien Sarea.	14.000

Laburbilduta, ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua ondoko taula honetan ageri dira:

Zerbitzua	Udala	EEAA	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak	Errentamendua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Oinarrizko gizarte-zerbitzua	X				
Etkez etxeko laguntza-zerbitzua	X				
Haur Eskolak 0-3 urte bitartean	X				
Musika eskola	X				
Hirigintza	X				
Lorategiak				X	
Hiri hondakinak			X		
Ur-hornidura		X			
Garraio publikoa				X	
Liburutegia	X				
Ludoteka	X				
Kontsumitzailearen arreta zerbitzua	X				
Kaleen eta bideen mantentze-lanak	X				
Kirolak	X				X
Kirol jardueren kudeaketa				X	
Udal Kiroldegia	X				
Babestutako enplegu soziala	X				
Diru-bilketa exekutiboa				X	
Familien Arreta Zentroa	X				
Familien arretarako zentroaren laguntza juridikoa	X				

Toki entitateari 2014ko ekitaldian aplikatzekoa zaion araubide juridikoa funtsean honakoek osatzen dute: Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1995 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Entitatearen aurrekontua 2014ko apirilaren 2an onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak. 2015eko apirilaren 13ko Osoko Bilkurak 2014ko kontuak onetsi zituen.

Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoak bere estatutuei jarraitzen die, bai eta toki-erregimeneko araudian ezarritakoari eta indarrean dagoen merkataritza-arauari ere; hau da, Merkataritza Kodeari, Kapital Sozietateei buruzko Legeari eta Kontabilitatearen Plan Orokorrari.

Txostenak sei atal ditu, sarrera hau barne. Bigarren atalean, txostenaren helburuak azaltzen dira, eta hirugarrenean, berriz, egindako lanaren norainokoa. Laugarrenean, 2014ko kontu orokorraren inguruko gure iritzia agertzen da. Bosgarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat. Azkenik, seigarren atalean, erakundearen antolaketa eta Udalaren barne-kontrola hobetzeko egokitutako jotzen ditugun iruzkin, ondorio eta aholkuak biltzen dira, arloz arlo.

Halaber, eranskin bat gehitu da Udalak 2014ko ekitaldiko kontuei buruz eginiko oroitidazkiarekin.

Eskerrak eman nahi dizkiegu Tuterako Udaleko, bere erakunde autonomoko, Castel-Ruiz enpresa-entitate publikoko eta fundazioetako langileei, lan hau egiteko emandako laguntzarengatik.

II. HELBURUA

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Tuterako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorraren erregularitasun-fiskalizazioa egin dugu.

Txostenaren helburua da honako puntu hauei buruzko gure iritzia eta ondorioak agertzea:

- Ea Tuterako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak Udalaren egoeraren irudi zehatza erakusten duen alderdi nabarmen guztietan, hots, ondareari, gastu eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta 2014ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldian eginiko eragiketen emaitzei dagokienez ere, aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitate-printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

- 2014an aurrera eramandako jarduerari aplikatzekoa zaion legeria zenbateraino bete den.
- Udalaren finantza-egoera 2014ko abenduaren 31n.
- Ganbera honek 2013ko fiskalizazio-txostenean eman zituen gomendioak noraino aplikatu diren.

Txostenari erantsi zaizkio, halaber, egokitzen jotzen diren aholkuak, Udalak eta haren menpeko entitateek ezarritako barne-kontroleko sistema, sistema administratiboa eta kontabilitate-nahiz kudeaketa-sistemak hobetu edo/eta osatze aldera.

III. NORAINOKOA

Tuterako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorrak hauek ditu osagai nagusiak:

- Erakundearen beraren kontua eta haren erakunde autonomoarena: Aurrekontuaren likidazioari buruzko egoera-orria, ekitaldiko aurrekontu-emaitza, diruzaintza-gerakina, egoera-balantzea eta emaitzen kontua.

- Castel-Ruiz Enpresa-entitate Publikoaren urteko kontuak.
- Kontu orokorraren eranskinak: egoera-orri bateratuak (Udala, erakunde autonomoa eta Castel-Ruiz), oroitidazkia, zorraren egoera-orria eta fundazioen urteko kontuak.

Lana gauzatu da Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren Fiskalizazio Eskuliburuan garatutako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz, eta azterlanaren helburuen eta inguruabarren arabera beharrezkotzat jo ditugun hautapropa edo prozedura tekniko guztiak bildu dira; prozedura horien barruan, laginketaren teknika edo kontusail edo eragiketa zehatz hautatuak berrikustekoa erabili da.

Zehazki, Udalari eta haren erakunde autonomoari dagokionez, aurrekontuen eta finantzen egoera-orrien edukia eta koherentzia aztertu dira, bai eta aplikatutako oinarritzko prozedura administratiboak ere; halaber, antolaketa, kontabilitate eta barne-kontroleko alderdi nabarmenenak ebaluatu dira.

Kanpoko profesionalek finantzen eta legezkotasunaren auditoria bat egin dute Castel-Ruiz Enpresa Entitate Publikoaren 2014ko urteko kontuei buruz, eta haien iritzia aldekoa izan da.

IV. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA.

Tuterako Udalaren 2014ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako V. atalean.

UDALAREN ERANTZUKIZUNA

Alkatea da kontu orokorrak egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

Udalak, gainera, bermatu beharko du finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela indarreko araudiarekin.

NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz. Horretarako, hura egin dugu Kanpo Kontroleko Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburuarekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpene ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako **iritzia** eratortzen da.

IV.1. 2014ko KONTU OROKORRARI BURUZKO FINANTZA-IRITZIA

IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN

Ez daude erregistratuta funtzionarioen pentsio-sistematik ondorioztatutako betebeharrak aktua-
rialak. Hala eta guztiz ere, zehaztu beharra dago 1993tik ez dela jarduneko langilerik afiliatu sis-
tema horretan. Udalak pentsioengatiko konpromisoak buruzko balioespen finantzario-aktuariala
egin zuen 2013ko ekitaldian, pasiboei zein aktiboei dagokienez. Konpromiso horiek, lan-
hipotesien arabera, 59.464.748 euro egiten zuten, montepioak indarra izanen duen aldirako.

IRITZIA

Arestian aipatutako salbuespenaren ondorioei dagokienez izan ezik, Udalaren 2014ko ekital-
diko kontu orokorrak alderdi behinenetan leialki irudikatzen ditu bere gastuen eta diru-sarreraren
aurrekontuen likidazioa, abenduaren 31ko ondare-egoera eta bere eragiketen emaitzak. Halaber,
behar bezala interpretatu eta ulertzeko behar den informazio guztia biltzen du, aplikatzekoa den
informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabili-
tateko printzipio eta irizpideei jarraituz betiere.

IV.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRTITIA

Egindako lanaren norainokoaren arabera, 2014ko ekitaldian Udalaren eta haren erakunde au-
tonomoaren jardura ekonomiko eta finantzarioa, oro har, legezketasun-printzipioari jarraituz egin
dela esan daiteke.

IV.3. UDALAREN 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Hasierako aurrekontu bateratuak (Udala, Uren Batzarra eta Castel-Ruiz) 36,46 milioiko
gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 1,28 –hau da, 0,47 milioi– handitu da
aurrekontu-aldaketan bitartez; horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 36,92 milioikoak
dira. Aldaketa horiek dautza nagusiki Uren Batzarrean mailegu baten amortizazio aurreratua,
0,46 milioikoa, egitetik.

Aitortutako betebeharrak 34,93 milioi eurokoak izan dira eta ehuneko 95eko betetze-maila
izan dute. Betetze-ehuneko txikiena duen kapituluak inbertsioena da, ehuneko 32rekin. Betetze-
maila handiena ondasun eta zerbitzuak gastuen kapituluari dagokio: ehuneko 98koa. Trans-
ferentzien atalak, berriz, honela bete dira: transferentzia arruntak ehuneko 82 bete dira; eta
kapital- transferentziak, berriz, ehuneko 73.

Aitortutako eskubideek 35,58 milioi euro egiten dute, eta betetze-maila % 96koa izan da.
Zuzeneko zergek eta tasek betetzearen ehuneko ehuna gaitzen dute. Zeharkako zergek
ehuneko 61eko betetzea dute, eta inbertsio errealean besterentzeek eta finantza-aktibo zein -
pasiboek ez dute betetzerik izan.

Gastuen izaerari begiratuz gero, gastu arruntek eta inbertsioek gastu guztien ehuneko 88
eta ehuneko 1 osatzen dute, hurrenez hurren. Diru-sarrera arruntak diru-sarrera guztien ehu-
neko 100 dira; diru-sarrera horien ehuneko 35 jasotako transferentzietatik (arruntak) datoz.

Laburbilduz, taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu den Udalaren gas-
tuen 100 euroko bakoitza:

Gastuaren izaera	Ehunekoak	Finantza-berdea	Ehunekoak
Langileak	46	Tributu bidezko diru-sarrerak	60
Bestelako gastu arruntak	41	Transferentziak	35
Inbertsioak	1	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	5
Finantza-zama	12	Zorduntzea	0
Guztira	100		100

Hona 2014rako aurrekontuaren betetzeari eta betetze horrek 2013tik izan duen bilakaerari buruzko datu ekonomikoak:

	2013	2014	Aldea (%), 2014/2013
Aitortutako betebeharrak, guztira	33.539.318	34.934.880	4
Betebehar ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	31.092.567	31.443.109	1
Likidatutako eskubideak, guztira	35.431.013	35.582.841	0
Eskubide ez-finantzarioak (1. kapitulutik 7.era)	35.431.013	35.582.841	0
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	29.945.661	30.775.693	3
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	29.383.773	30.242.855	3
Inbertsioen gastuak (6. eta 7. kapituluak)	1.146.906	667.417	-42
Finantza-eragiketen gastuak (8. eta 9. kapituluak)	2.446.751	3.491.771	43
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	34.996.347	35.549.929	2
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	21.080.468	21.373.787	1
Finantza-eragiketen diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	0	-
Diru-laguntzen menpekotasunaren ehunekoa	34	35	3
Zerga bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak	70	69	-1

	2013	2014	Aldea (%), 2014/2013
Saldo ez-finantzarioa	4.338.446	4.139.732	-5
Aurrekontu-emaizta doituak	1.627.960	1.075.798	-34
Aurrezki gordina	5.612.575	5.307.075	-5
Finantza-zama (3.etik 9.era)	3.008.639	4.024.609	34
Aurrezki garbia	2.603.935	1.282.465	-51
Zorpetze-mailaren ehunekoa	8,6	11	28
Zorpetzearen mugaren ehunekoa	16,04	15	-6
Zorpetze-ahalmenaren ehunekoa	7	4	-43
Diruzaintza-gerakina, guztira	7.731.476	7.910.886	2
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-5.810.340	-4.913.842	-15
Zor bizia	39.052.811	35.561.040	-9
Ehunekoa Diru-sarrera arruntaren gaineko zor bizia	112	100	-11
Zor bizia biztanleko	1.104	1.014	-8
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	7	7	0

2014an, Udalak ehuneko 4 gehiago gastatu du aurreko ekitaldian baino; diru-sarrerak, berriz, oso antzekoak izan dira. Igoera hori justifikatuta dago ondasun arrunt eta zerbitzuetan gastu handiagoak egin direlako eta zorra amortizatzeko zuzkidura handiagoa izan delako, Kultur Etxea eraikitzeo mailegua itzultzearen ondorioz.

Gastu arruntetan ehuneko 3ko igoera izan da, eta diru-sarrera arruntak ehuneko 2 urritu dira. Gastu arruntetan izandako igoeraren arrazoia, nagusiki, ondasun arrunt eta zerbitzuen arloko gastuak handitzea izan da.

Aurrekontu-emaizta doituak 1,08 milioiko superabita erakusten du; aurreko urtean, berriz, 1,63 milioiko superabita izan zuen.

2014an, aurrezki gordin bateratua 5,31 milioi eurokoa izan zen; aurrezki garbiak, berriz, 1,28 milioi euroko saldoa izan zuen. 2013ko ekitaldian, magnitude horiek 5,61 milioiko eta 2,6 milioiko saldoa izan zuten, hurrenez hurren.

Zorpetze maila ehuneko 11,32koa da; zorpetze-muga, berriz, ehuneko 14,93koa.

Diruzaintza-gerakina 7,91 milioikoa da guztira; 2013ko ekitaldian, berriz, 7,73 milioikoa izan zen. Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak negatiboa izaten jarraitzen du, 4,91 milioi eurokoa (5,81 milioi eurokoa izan zen 2013an).

Epe luzeko zorra 35,5 milioi eurokoa da; 2013an, berriz, 39 milioi eurokoa izan zen. Zor horrek –zeina 1.014 eurokoa baita biztanle bakoitzeko– entitatearen diru-sarrera arrunten guztizkoaren ehuneko 100 egiten du. Portzentaje hori gaur egun zorpetze berria baldintzatzen duen ehuneko 110eko legezko mugaren azpitik dago.

2014an zehar, ez da zorpetze berririk hartu.

Geroago gertatu diren egitateen artean, aipatu behar da 2015ean Kultur Etxearen mailegua kitatu dela, kasuko kreditu-eragiketa eginez. Halaber, nabarmentzekoa da Gizarte Segurantzak erreklamatuta 265.000 euro ordaindu behar izan zirela 2014an, eta erreklamatutako beste 189.000 euro daudela ordaintzeko.

Honakoa izan da aurrekontuaren betetzea 2006ko ekitalditik hasi eta 2014ra arte:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1. Zuzeneko zergak	9.045.491	8.428.646	10.216.912	10.347.341	10.656.364	10.854.322	11.358.934	11.877.842	12.537.530
2. Zeharkako zergak	2.071.829	4.159.294	1.892.383	1.210.524	1.407.143	812.044	841.519	375.161	367.741
Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.271.187	8.706.111	8.266.895	8.295.911	8.578.030	8.753.581	9.052.916	8.827.465	8.468.516
4. Transferentzia arruntak	11.675.154	12.505.552	14.060.542	13.475.030	13.946.140	13.023.772	12.192.098	12.159.849	12.479.255
5. Ondare diru-sarrerak eta herri-lurren aprob.	2.132.484	1.926.230	2.151.926	1.979.983	1.678.696	1.359.356	1.665.273	1.756.030	1.696.887
6. Inbertsio errealeen besterentzeak	78.368	629.502	399.530	1.980	2.382.173	333.915	274.619	434.666	69.567
7. Entitateari egindako transferentziak	2.650.419	2.924.634	2.617.566	7.452.436	6.651.769	1.160.170	382.615	0	-36.656
8. Finantza-aktiboak	0	0	75	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	230.503	12.000.000	0	11.200.000	12.104.658	0	0	0	0
Guztira	36.155.435	51.279.969	39.605.829	53.963.205	57.404.973	36.297.160	35.767.974	35.431.013	35.582.841

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Deskribapena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014
1. Langile-gastuak	13.692.505	14.089.723	15.881.086	16.211.412	16.300.731	16.343.899	15.216.656	15.701.978	15.897.742
2. Ondasun arruntak eta zerbitzuak	12.617.839	14.270.333	16.014.595	16.782.862	14.359.819	15.298.619	13.119.361	12.236.386	12.852.066
3. Finantza-gastuak	391.564	293.075	513.833	334.667	590.990	677.271	809.022	561.888	532.838
4. Transferentzia arruntak	2.059.306	1.865.226	1.970.854	2.485.303	3.235.794	1.945.330	1.324.326	1.445.409	1.493.047
6. Inbertsio errealak	6.842.171	12.331.140	10.440.559	14.782.090	10.021.835	4.102.892	1.844.117	801.767	351.958
7. Kapital-transferentziak	172.934	311.864	222.557	437.797	113.485	115.221	86.168	345.139	315.459
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	1.333.827	1.259.165	1.184.685	1.184.651	1.192.731	1.820.165	1.764.475	2.446.751	3.491.771
Guztira	37.110.146	44.420.526	46.228.169	52.218.782	45.815.385	40.303.397	34.164.125	33.539.318	34.934.880

Aurreko taulako datuetatik ondorioztatzen denez, bistan da zuzeneko zergak etengabe igo direla, zeharkako zergak (EIOZa) jaitsi direla eta kapital-transferentziak, logikoa denez, jaitsi direla, egiten diren inbertsioei lotuta baitaude –inbertsioek nabarmen egin dute behera–. Azpimarratu behar dugu 2011tik ez dela finantza-pasiboen bidezko diru-sarrerarik izan.

Gastuei dagokienez, 2009ra arte igoera bat gertatu da, eta gero nabarmentzeko moduko beherakada bat gertatu da. Hartara, 2014ko gastua 2006koa baino txikiagoa da. Ikusten da 2009tik aurrera gastu arruntari eutsi egin zaiola eta inbertsioak asko murriztu direla. 2014ko gastua hantxeagoa da 2012ko eta 2013ko ekitaldietakoa baino; nolana ere, agerikoa da gastuei eusteko joera argia dagoela.

Udalak egindako jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011 eta 2014 bitarte. Urte horietan, 9,5 milioi egiten duen zorra amortizatu da.

Adierazlea	2011	2014
Zorpetze-ahalmena	% -3,7	% 3,6
Inbertsio indizea	% 10,5	% 1,9
Gastu arrunta biztanleko	972 €	878 €
Tributu diru-sarrerak/biztanleko	579 €	610 €

Epe ertainean Udalaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Udalak, dagokion planaren bitartez, hainbat neurri hartzen jarraitzea, bere gastu arruntei eutsi eta baliabide arruntak sortzeko ahalmena indartzeko aukera emanen diotenak.

IV. 4. AURREKONTU-EGONKORTASUNEKO ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunaren printzipioa noraino bete den kalkulatu da, Nafarroako Gobernuak 2014ko maiatzean horretarako eman duen gidaz baliatuta. Hurrengo taulan ematen dugu horren emaitza:

Kontzeptua	Zenbatekoa
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	4.151.538
Doikuntzak	-1.026.406
Finantzatzeko ahalmena	3.125.132

Horrenbestez, Tuterako Udalak aurrekontu-egonkortasunaren baldintzak bete ditu, eta gastuaren araua ere bete du, zeren eta kontatzekoa den gastua txikiagoa baita ezarritako muga baino (2013koa gehi ehuneko 1,5); halaber, finantza-iraunkortasunaren printzipioa bete du, zorra ezarritako mugatik beherakoa baita.

Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

Fiskalizazioari buruzko gure iritzian eragin nahi gabe ere, Kontuen Ganbera honek nabarmendu nahi ditu krisi ekonomikoko egungo egoeraren arriskuen ondorioz dagoen ziurgabetasuna, ziurgabetasun horrek Udalaren kontu publikoen gainean dituen eragin finantzarioak eta aurrekontu-egonkortasunari buruzko arauetatik heldu diren aurrekontu-betebeharrak.

Testuinguru honetan, aurrekontuen plangintzan eta betetzean zorrotz jokatzek eta funts publikoen erabileran gardentasuna izateak herritarren funtsezko beharrekin bat datorren kudeaketa publiko baten oinarritzko baldintza izan behar dute.

IV.5. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Oro har, aplikatzen ari dira Kontuen Ganberak azken txostenetan emandako gomendioak. Txostenean zehar aipatu ditugu oraindik ere ezarri ez direnak edo egindako lanaren ondorioz sortu diren gomendio berriak.

V. UDALAREN 2014ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA

Ondoren 2014ko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala gehi erakunde autonomoa gehi entitate publiko enpresariala).

V.1. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN BETETZEAREN EGOERA-ORRIA**Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Betetakoaren ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Ordaintzeko dagoena (%)
1. Langile-gastuak	16.215.957	124.382	16.340.339	15.897.742	97	15.657.275	240.467	2
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	13.164.721	8.975	13.173.696	12.852.066	98	11.137.920	1.714.146	13
3. Finantza-gastuak	629.779	-72.806	556.973	532.838	96	532.175	663	0
4. Transferentzia arruntak	1.957.305	-141.505	1.815.800	1.493.047	82	1.222.487	273.911	18
6. Inbertsio errealak	1.030.987	85.321	1.116.308	351.958	32	167.032	184.926	53
7. Kapital-transferentziak	430.000	0	430.000	315.459	73	312.169	3.290	1
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	-	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	3.031.023	460.749	3.491.771	3.491.771	100	3.491.771	0	0
Guztira	36.459.771	465.115	36.924.887	34.934.880	95	32.520.827	2.417.405	7

Diru-sarrerak kapitulu ekonomikoen arabera

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Betetakoa (%)	Kobrantsak	Kobratzeko dagoena	Kobratzeko dagoena (%)
1. Zuzeneko zergak	12.408.780	0	12.408.780	12.537.530	101	11.583.385	954.145	8
2. Zeharkako zergak	600.000	0	600.000	367.741	61	358.615	9.127	2
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	8.357.391	4.367	8.361.758	8.468.516	101	7.185.612	1.282.904	15
4. Transferentzia arruntak	12.560.300	0	12.560.300	12.479.255	99	12.137.018	345.588	3
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.713.300	0	1.713.300	1.696.887	99	1.606.793	90.094	5
6. Inbertsio errealak besterentzea	0	0	0	69.567	-	69.567	0	0
7. Kapital-transferentziak	820.000	0	820.000	-36.656	-4	-36.656	0	0
8. Finantza-aktiboak	0	460.749	460.749	0	0	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	0	0	0	-	0	0	-
Guztira	36.459.771	465.115	36.924.887	35.582.841	96	32.904.334	2.681.858	8

V.2. 2014ko AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA

Kontzeptua	2013	2014
+ Aitortutako eskubideak	35.431.013	35.582.841
- Aitortutako betebeharrak	33.539.318	34.934.880
= Aurrekontu-emaiza	1.891.695	647.960
Doikuntzak		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	434.005	69.567
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0	36.656
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	170.269	460.749
+ Ekitaldiko diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako gastuak		
= Aurrekontu-emaiza doituia	1.627.960	1.075.798

V.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRIA 2014ko ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2013	2014
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	2.912.287	3.226.311
(+) Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.432.357	2.678.507
(+) Diru-sarrerak: Itxitako ekitaldiak	3.505.568	3.688.056
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	333.482	382.293
(+) Gastuen itzulketak	6.637	8.260
(-) Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	-85.771	-399.337
(-) Nekez kobratzeko eskubideak	-3.279.985	-3.131.468
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	5.740.828	5.898.765
(+) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	2.752.535	2.414.053
(+) Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	1.171.422	1.371.289
(+) Diru-sarreraren aurrekontua	127.139	92.269
(+) Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	366.664	384.210
(+) Aurrekontuz kanpoko gastuak	1.361.034	1.674.539
(-) Aplikatzeko dauden gastuak	-37.967	-37.595
(+) Diruzaintzako funts likidoak	10.560.016	10.583.340
(+) Finantzaketa-desbideratze metatu negatiboak	0	0
= Diruzaintza-gerakina, guztira	7.731.476	7.910.886
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	13.541.816	12.824.727
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	-5.810.340	-4.913.842

V.4. 2014ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa

Deskribapena	2014	2013
A. Ibilgetua	122.565.136	125.185.558
1 Ibilgetu materiala	100.122.176	102.767.453
2 Ibilgetu ez-materiala	218.801	210.087
3 Erabilera orokorrerako azpiegitura eta ondasunak	4.842.344	4.826.203
4 Herri-ondasunak	17.375.324	17.375.324
5 Finantza-ibilgetua	6.491	6.491
C. Zirkulatzaila	17.557.206	17.040.403
7 Izakinak	187.416	171.013
8 Zordunak	6.748.856	6.271.407
9 Oraindik aplikatu gabeko partidak	37.595	37.967
10 Finantza-kontuak	10.583.340	10.560.016
Aktiboa, guztira	140.122.342	142.225.961

Pasiboa

Deskribapena	2014	2013
A Funts berekiak	92.760.416	91.678.102
1 Ondarea eta erreserbak	25.332.976	23.884.679
2 Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (galera)	1.168.011	1.509.663
3 Kapitaleko diru-laguntzak	66.259.429	66.283.760
B Arrisku eta gastuetarako hornidurak	3.131.468	3.279.985
4 Hornidurak	3.131.468	3.279.985
C Epe luzeko hartzekodunak	36.491.611	39.959.807
4 Jesapenak, maileguak eta fidantzak, jasotako gordailua	36.491.611	39.959.807
D Epe laburreko hartzekodunak		7.308.067
5 Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	5.928.100	5.772.158
6 Aplikatzeko dauden kontusailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	1.810.747	1.535.909
Pasiboa, guztira	140.122.342	142.225.961

V.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2014AN

Ekitaldiko emaitza arruntak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
3 Hasierako izakinak	171.013	140.153	3 Bukaerako erosketak	187.416	171.013
39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-	39 Izakinen balio-galtzeen hornidura	-	-
60 Erosketak	73.664	84.146	70 Salmentak	6.052.148	6.152.877
61 Langile-gastuak	13.919.456	13.953.194	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	3.731.651	4.031.601
62 Finantza-gastuak	530.766	561.796	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	10.302.993	10.125.092
63 Tributuak	664	788	73 Errentaren gaineko zerga arruntak	1.764.537	1.751.982
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	12.675.303	12.056.719	74 Ibilgetuko diru-laguntzen egozpena	85.696	85.894
65 Gizarte prestazioak	2.080.721	1.843.527	75 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0
66 Ustiapenerako diru-laguntzak	0	0	76 Transferentzia arruntak	12.457.255	12.155.849
67 Transferentzia arruntak	1.493.047	1.445.409	77 Kapitalaren gaineko zergak	837.741	375.930
68 Kapital-transferentziak	315.459	342.509	78 Bestelako diru-sarrerak	408.710	409.429
69 Amortizaziorako eta hornikuntzarako zuzkidurak	3.508.266	3.620.409	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	7.985	8.363
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.067.773	1.219.380	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
Guztira	35.836.132	35.268.030	Guztira	35.836.132	35.268.030

Ekitaldiko emaitzak

Deskribapena	2014	2013	Deskribapena	2014	2013
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0	80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	1.067.773	1.219.380
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	0	0	82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	72.067	231.498
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0	83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo zorduna)	0	7.677	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa (saldo hartzekoduna)	28.171	66.461
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	1.168.011	1.509.663	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
Guztira	1.168.011	1.517.340	Guztira	1.168.011	1.517.340

VI. IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

Ondoren, kudeaketaren arlo esanguratsuenen arabera sailkaturik, Ganberaren iritziz Udalak eta haren mendeko erakundeek (erakundea autonomoak, enpresak eta fundazio publikoak) beren antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne kontrola hobetzeko hartu beharko lituzketen neurriei buruzko gomendio eta iruzkin nagusiak emanen ditugu.

VI.1. ALDERDI OROKORRAK

- Ez da aurkitu 2014ko fakturen zenbateko garrantzitsurik 2015eko aurrekontuari egotzi zaionik.
- 0,4 milioi euro egiten duten fidantza batzuk badaude, baina egiaztatzeko dago haiek indarrean dauden. Azterlanik ez da egin azken 15 urte hauetan; horrenbestez, aztertzea gomendatzen dugu.
- Oro har, Udalak betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak. Epe horiek gainditzten dituzten kasuak gertatzen dira prozedura judizialean dauden gaien ondorioz.
- Udala eta haren erakunde autonomoa zenbait prozedura judizialean sarturik daude. Ez da kigu haren ondorio ekonomikoek kontu orokorretan eragin ekonomiko esanguratsurik izanzen duten. Udalak emandako informazioaren arabera, 2015eko apirilaren 9an hainbat instantziaren aurreko errekurso-kopurua 30 zen.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Fidantzen saldoaren indarraldia berrikustea eta, kasua bada, hura erregularizatzea.*
- *Fundazioen finantzaketari eta emaitzei dagokienez, honakoak aztertzea:*
 - Aukeratutakoa ote den biderik egokiena eskaintzen diren zerbitzuak emateko.*
 - Kontuan hartu behar ote diren aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari begira.*
 - Entitate horiei aplikatu behar ote zaien Toki Araubidearen Oinarriei buruzko 7/1985 Legeko bederatzigarren xedapen gehigarria, 27/2013 Legearen bitartez sartutakoa, finantza-desorekako egoeran dauden entitateei buruzkoa.*

VI.2. LANGILEAK

Langileen gastua 15,90 milioi eurokoa da; hau da, 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 46 eta gastu arrunten ehuneko 52.

2013ko ekitaldiaren aldean, aitortutako betebeharrak ehuneko bat handitu dira, honako xehetasunen arabera:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2013	2014	
Goi-karguak	151.382	155.496	3
Kabineteetako behin-behineko langileak	184.446	181.495	-2
Funtzionarioak	6.899.065	7.041.906	2
Lan-kontratadun langileak	3.644.128	3.451.609	-5
Bestelako langileak	0	0	-
Gizarte-zamak	4.822.957	5.067.236	5
1. kapitulua, guztira	15.701.978	15.897.742	1

Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko apirilean hasierako onespena eman zion urte horretako plantilla organikoari. Udalaren uztailaren 21eko Osoko Bilkuraren erabakiz onetsi zen behin betiko, eta abuztuaren 14ko NAO n argitaratu zen.

Udalbatzak 2014ko ekitaldiko plantilla organikoa onartu zuen: 348 lanpostu daude jasota –horietatik 113 lanpostu bete gabe daude–. Ondoko taula hauetan erakusten da lanpostu horien banaketa:

	Lanpostu-kopurua	Aktiboa	Lanpostu hutsak	Betetako lanpostu hutsak
Udala				
Funtzionarioak	275	189	86	57
Lan-kontratadun finkoak	33	20	13	
Behin-behinekoak:	4	4		
Uren Batzarra				
Funtzionarioak	26	16	10	10
Lan-kontratadun finkoak	1	1		
Behin-behinekoak:	1			
Castel-Ruiz Enpresa Entitate Publikoa				
Funtzionarioak	3	3		
Lan-kontratadun finkoak	4	1	3	3
Behin-behinekoak:	1	1		
Guztira	348	235	113	83

2014ko abenduaren 31n, 361 lagunek lan egiten dute, guztira, Udalean, erakundea autonomoan eta Castel-Ruizen, eta era honetara banatuta daude:

Langileak	Udala	Uren Batzarra	Castel-Ruiz	Guztira
Udaleko batzarkideak	7	0	1	8
Aldi baterako langileak - lizentziatutakoak	4	1	1	6
Funtzionarioak	185	15	4	204
Lan-kontratadun finkoak	20	1	1	22
Aldi baterako lan-kontratadunak	112	7	2	121
Guztira	328	24	9	361

Udalaren aipatutako langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Kabinetea	4
Idazkaritza Nagusia	3
Kontu-hartzailetza	5
Agiritegia	4
Aholkularitza juridikoa	2
Udaltzaingoa	61
Antolaketa, kalitatea eta herritarren arreta	11
Langileak	7
IKTak	3
Sustapena eta berrikuntza	8
Ogasuna	21
Kirolak, hezkuntza, gazteria eta gizarte etxeak, gizarte gaiak eta emakumea	143
Lurraldearen antolamendua	28
Musika-eskola	28
Guztira	328

Langileen arloan, gainerako arloetatik nominak egiteko behar den informazioa jasotzen da, baina ez da nomina guztien laburpenik egiten –hilabetez hilabete eta kontzeptuka–; bestalde, geroko berrikuspena egiteko behar den informazioaren zati baten euskarririk ez dago. Hori dela eta, berrikuspena kontabilitate-arloan dauden datuekin egin dugu.

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta harreman-kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla. Egiaztatu dugu, halaber, 2014ko ekitaldian ez dela izan langileen eta zinegotzien soldata-igoerarik.

Egiaztatu da, berriz ere, aldi baterako kontratazioetarako zerrenda gehienak iraungita daudela.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeke eta aldi baterako kontratazioetarako zerrendak gaurkotzeko.*

- *Langileen arlorako kudeaketa-sistemak aztertu eta osatzea, bereziki prozedurei eta gorde beharreko dokumentazioari, aparteko orduei eta gainerako arloekiko koordinazioari dagokienez.*

VI.3. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan eginiko gastuek 12,85 milioi euro egin dute 2014ko ekitaldian; guztira, ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 37 eta eragiketa arruntten gastuen ehuneko 42 egiten dute. Horiek horrela, ehuneko bost igo da 2013 ekitaldiarekiko.

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hauek berrikusi dira (zenbatekoak BEZik gabe daude):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
Udaltzaingorako turismo erako patruila-ibilgailu bat errentamendu bidez alokatzea, erosteko aukerarik gabe.	Hornidura	Irekia; Europar Batasunean publizitaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	27.392	2	26.814
Furgoi bat hornitzea Udaltzaingorako	Hornidura	Irekia; Europar Batasunean publizitaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	44.628(*)	2	43.574(*)
Santa Ana jaietako jendaurreko ikuskizunak	Laguntza	Irekia; Europar Batasunean publizitaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	61.983	2	61.300
Zerbitzarien finkapena eta birtualizatzea eta datuen biltegiratzea	Hornidura	Irekia; Europar Batasunean publizitaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	61.000	13	48.740
Hornidura- eta saneamendu-sareen konponketa-lanak	Laguntza	Irekia; Europar Batasunean publizitaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	160.185	3	133.485

(*) Zenbatekoa, 4 urtekorako

Aurreko berrikuspenarekin eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bat aztertuta, egiaztatu da gastuak fakturekin eta ziurtagiriek justifikatuta daudela, zuzen kontabilizatu direla eta aplikatzekoa den kontratuei buruzko araudia arrazoiz errespetatu dela, bai eta kontratuen indarraldiak zuzenak direla ere; salbuespen bakarra da 2014an zerbitzu batzuk lizitaziora atera behar zirela.

Gomendatzen dugu kontratuen lizitazio berriak prestatzea aurrekoen muga-egunak kontuan hartuta.

VI.4. FINANTZA-ZAMA

Finantza-zamaren gastuek (interesak gehi zorraren amortizazioa) 4,02 milioi egin dute, eta 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 12 dira. 2013. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko 34 igo dira.

Hona gastu horien xehekako azalpena:

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%) 2013/2014
	2013	2014	
Maileguen interesak	561.888	532.838	-5
Maileguen amortizazioa	2.446.751	3.491.771	43

Honakoa da epe luzeko zorraren amortizazioen egutegia –gehienetan, hitzartutako maileguak 20 urteko eperako izan dira–:

Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Ehuneko metatua
2015	2.932.856	8	8
2016-2020	12.899.338	36	45
2021-2025	10.741.441	30	75
2025-2030	8.987.406	25	100
Guztira	35.561.041	100	

Aipatu beharra dago Uren Batzarrean aurrez amortizatu dela finantza-entitate batek 2014ko ekitaldian emandako 700.000 euroko mailegu bat, halako moduz non 2014ko abenduaren 31n zorrik gabe dagoen.

VI.5. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Izaera hori duten gastuek 1,81 milioikoak izan dira: 2014an sortutako gastu guztien ehuneko 5,18, transferentzia arruntan ehuneko 4,27 eta kapital-transferentzien ehuneko 0,90 egiten dute.

	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%) 2013/2014
	2013	2014	
Toki entitateei	44.258	45.294	2
Enpresa pribatuei	176.735	143.318	-19
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	1.224.415	1.304.434	7
4. Transferentzia arruntak	1.445.409	1.493.046	3
Toki entitateei	-	-	-
Enpresa pribatuei	227.630	225.000	-1
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	117.509	90.459	-23
7. Kapital-transferentziak	345.139	315.459	-9

2013. urtearen aldean, gastu horiek ehuneko 1 igo dira.

Honakoak dira 2014an emandako diru-laguntza garrantzitsuenak:

Onuraduna	Zenbatekoa
Castel-Ruiz	1.050.000
Etkez etxeko laguntzarako laguntzak	291.700
Garapenerako laguntzak eta diru-laguntza	128.800
Informazioaren Gizarterako Dédalo Fundazioa	115.000

Udalak ez du diru-laguntzen plan estrategikorik, ez eta ordenantza orokorrik ere, nahiz eta Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak hori arautu zuen. Kontu-hartzaileak inguruabar hori zenbait txostenetan nabarmendu izan du. Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak emateko bera-

riazko ordenantza batzuk badaude, nahiz eta haietako batzuk –bereziki, gizarte zerbitzuena– antzinakoak diren eta egungo premien arabera egokitu beharko liratekeen.

Egiaztatu da Kontu-hartzailetzaren arloak egiten duen barne-kontrolak zuzen funtzionatzen duela Tokiko Gobernu Batzarrek emandako diru-laguntzen ordainketak egiteko orduan.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Diru-laguntzei buruzko plan estrategiko bat taxutzea eta haiei buruzko ordenantza orokorra onestea.*
- *Zaharkituta geratu diren ordenantzak berrikusi edo gaurkotzea.*

VI.6. INBERTSIOAK

2014. urterako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioen (1,12 milioi) ehuneko 32 bete da, eta 0,35 milioira iritsi da; hain zuzen ere, ekitaldiko betebeharrak guztien ehuneko 1.

Taulan ikus daiteke nolako bilakaera izan duen azken urteetan inbertsioen betetzearen ehunekoak.

Ekitaldia	Inbertsioak betetzearen ehunekoak
2005	26
2006	15
2007	24
2008	25
2009	34
2010	28
2011	22
2012	49
2013	51
2014	32

Kontuen Ganbera honek behin eta berriro gomendatu izan du txostenetan aurrekontuko inbertsioetarako zenbatekoak kudeaketa-ahalmen errealean arabera doitu behar direla.

2013arekin alderatuta, inbertsioek ehuneko 56 –hau da, milioi erdi bat euro– egin dute behar.

Honakoak dira 2014an egindako inbertsio garrantzitsuenak:

Inbertsioa	Zenbatekoa
San Nikolas eliza zaharberritzea	149.756
Zerbitzariak finkatu eta birtualizatzeko proiektua	48.740
Absortzio atomikorako espektrofotometro bat erostea	42.500

Kapitulu honi egotzitako kontratazio-espeditente hau berrikusi da (zenbatekoa BEZa gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipenaren zenbatekoa
San Nikolas eliza partzialki finkatzea eta haren teilatuak	Obrak	Irekia; Europar Batasunean publikizaterik egin gabea eskaintza onenarentzat	448.933	7	314.702

Egindako azterketan oinarrituta egiaztatu da bete egiten dela kontratuei buruzko legedia – alderdi nagusietan –, bai kontratazio-espedientea izapidetzean, bai hura esleitzean eta betetzean ere, eta kontabilizatutako gastuak arrazoizkoak direla.

VI.7. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2014ko ekitaldian aitortutako eskubideak 35,58 milioikoak izan dira; ehuneko 99,91 eragiketa arruntengatiko diru-sarrerei dagozkien eta ehuneko 0,09, berriz, kapital-eragiketei.

Diru-sarrera arrunten artean tributuen bidezko diru-sarrerak (21 milioi eurokoak) eta transferentzia arruntak (12 milioi eurokoak) nabarmentzen dira, aurreko ekitaldian bezala.

Diru-sarreren aurrekontuaren gauzatze-maila ehuneko 96koa izan da.

2013. urtearen aldean, aitortutako eskubideak ia ez dira aldatu. Honako hau da haien xehakiztea:

Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2014/2013
	2013	2014	
1. Zuzeneko zergak	11.877.842	12.537.530	6
2. Zeharkako zergak	375.161	367.741	-2
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	8.827.465	8.468.516	-4
4. Transferentzia arruntak	12.159.849	12.479.255	3
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	1.756.030	1.696.887	-3
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	34.996.347	35.549.929	2
6. Inbertsioen besterentzea	434.666	69.567	-84
7. Kapital-transferentziak	-	-36.656	-
8. Finantza-aktiboak	-	-	-
9. Finantza-pasiboak	-	-	-
Kapital-sarrerak eta finantza-eragiketenak (6. kapitulutik 9.era)	434.666	32.912	-92
Diru-sarrerak, guztira	35.431.013	35.582.841	0

Zuzeneko zergen, tasen eta transferentzia arrunten bitartez lortutako diru-sarrerak nabarmentzen dira. 2013ko ekitaldiarekiko alde nagusiak inbertsioen besterentzean daude, zeren eta aurreko ekitaldian lursailen salmentak oso adierazgarriak izan baitziren.

Kapital-transferentziek saldo negatiboa daukate, zeren eta ekitaldian ez baita diru-sarrerarik izan, eta hirigintza-aprobetxamenduen ondoriozko diru-sarreren itzulketak egin baitira.

Hurrengo taulan udal zerga bakoitzeko aitortu diren eskubideen bilakaera erakusten dugu:

Diru-sarreren kapituluak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2014/2013
	2013	2014	
Lurraren gaineko kontribuzioa	8.048.423	8.307.614	3
Ibilgailuak	1.751.117	1.764.449	1
Lurren balio-gehikuntza	375.930	837.741	123
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1.701.507	1.627.638	-4
Luxu-zergak	865	88	-90
EIOZa	375.161	367.741	-2
Guztira	12.253.003	12.905.271	5

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, 1., 2. eta 3. kapituluetan diru-sarrera handiagoak lortu dira. 293 mila euroko igoera izan da.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Lurraren kontribuzioa	0,389	0,10 - 0,50
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1-1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,4-2,9	2tik 3,8ra
Zerga-tasa	16,22	8tik 20ra
Eraikuntza, instalazioak eta obrak	4	2 - 5

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontusailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, oro har egoki izapidetu eta kontabilizatu direla egiaztatu dugu.

VI.8. HIRIGINTZA

Tuterako Udalak bere baliabideen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak, Hirigintza Alorra izeneko organo baten bitartez; organo horretan diharduten pertsonak hauek dira: arkitekto bat, legegari bat, arkitekto tekniko bat, bost administrari eta obren zaindari bat.

Udalak ez du kanpoko hirigintza-aholkularitza iraunkorrik. Hala eta guztiz ere, obra-zuzendaritzako lanak eta proiektuetako oroitidazkiak idazteko lanak beti kanpoko profesionalak egiten dituzte.

Tuterako Udalaren Lurraldearen Antolamenduari buruzko Plana 1991n onetsi zen, eta 1996an haren eguneratze bat onetsi zen.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen –2006ko apirilera bitartekoa– indarrean zeuden planeamenduak homologatzeko eta moldatzeko.

Udalak abiatu ditu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko izapideak. 2006an esleitu zen Hiri Antolamendurako Plana taxutzea, Lurralde eta Hirigintza Antolamenduaren Foru Legeari egokitze aldea. "Lurraldea Okupatzeko Estrategia eta Eredua" izeneko dokumentuari 2007an eman zitzaion hasierako onespina. Gaur egun, Nafarroako Gobernuarekin Aurretiko Hitzarmena egitearen zain dago, 35/2002 Foru Legean ezarritakoaren arabera; izan ere, oroitidazkiak zehazten duenaren arabera, abiadura handiko linearen ibilbidea behin betiko zehaztearen menpe dago.

Udalak ez du hirigintza-hitzarmenen erregistrorik, ez eta Udalaren lurzoru-ondarearen inbentario eta erregistro espezifikorik ere; hala ere, ondare horretatik datozen diru-sarrera atxikien jarraipena egiten da.

Udalak aurkeztutako oroitidazkian, ekitaldian zehar gauzatutako hirigintza-jarduerak zehazten dira.

Aholkuok ematen ditugu:

- *Hirigintza planeamendua Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzeko prozesua burutzea.*
- *Hirigintzako hitzarmenen erregistroa eta artxiboa ezartzea, indarrean den legediak eskatzen duen dokumentazioarekin.*
- *Udalaren lurzoru-ondarearen inbentarioa eta erregistroa sortzea, kontuan izanda gainerako ondasunetatik bereizita kudeatu behar dela, eta indarrean dagoen legedian jasotako helburuei lotuta dagoela.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Lehendakaria, Helio Robleda Cabezas

